

- 1 -

**2017KO UZTAILAREN 7AN EGINIKO BILERAREN AKTA
IRAKURRI ETA ONARTZEA**

Ikusirik Batzar Nagusiak, bi mila eta hamazazpiko uztailaren zazpian, Hondarribiko Udal Txit Goreneko Areto Nagusian eginiko bilera, bilera horren Akta aurkezten da irakurri eta Batzar Nagusiak onar dezan.

LEHENDAKARIAK EMANIKO EBAZPENEN BERRI EMATEA

Partzuergoaren Estatutuen 18. artikulua aplikaturik, Partzuergoko Lehendakariak berak emaniko Ebazpenen kontu eman zion Batzar Nagusiari. Hona hemen ebazpen horien edukia:

7. EBAZPENA, 2017ko ekainaren 21koa. Haren bidez, onartu egiten da Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoaren eta Izurde Urpeko Ekintzak Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, eta 1.775 €-ko diru laguntza izenduna ematen da Bidasoa Ibaiaren Nazioarteko Jeitsiera Hegatsekin egiteko. Aipatutako hitzarmena sinatzen denean laguntza horren % 50a aurreratuko da.

8. EBAZPENA, 2017ko ekainaren 27koa. Haren bidez, "Egunsentia edo Ilunabarra Txingudiko badian" mugaz-gaindiko grafiti-lehiaketa deitzea eta lehiaketa hori antolatzeke OINARRIAK onartzen dira, Bidasoko Interpretazio Zentroa dinamizatzeko, Irun, Hondarribia eta Hendaia arteko "Turismo informazioa eta sustapena" funtzio programaren esparruan.

9. EBAZPENA, 2017ko uztailaren 7koa. Haren bidez, lehen zenbakiko Kreditu Gehigarriaren espediente hau onartzen da, guztira 2.700,00 eurokoa, Partzuergoaren aurrekontuetan 2017 ekitaldirako hasieran aurreikusitako aurrekontu izendapena handitzen da "Bidasoko Interpretazio Zentroa" programa aurrera eramanez ahal izateko, eta "433 01 432 Informazio eta sustapen turistikoa" gastuen kontu-saila kopuru honekin handitzen da, Diruzaintzako Kreditu Soberakinarekin finantzatua (870.01 sarreraren kontu-saila).

10. EBAZPENA, 2017ko irailaren 13koa. Haren bidez, Bidasoako Erakustazoka S.A.ri 3.005 €-ko kopurua ordaintzeko agindua ematen da, Partzuergoaren ordezkariak haren Organismoetan duten parte hartze kontzeptuan 2017ko ekitaldiari dagokiona.

11. EBAZPENA, 2017ko urriaren 2koa. Haren bidez, Behin-behinean eta gutxienean eta ezinbesteko hiru hilabeteko eperako izenpetzen da, beharreko hitzarmena Bidasoako Garapenerako Agentzia S.A.rekin Partzuergoaren kudeaketa kaltetu ez dadin. Haren arabera, agentzia horrek bere gain hartuko du Partzuergoaren jardueraren kudeaketa, Partzuergoaren organo erabakitzaileek hartutako erabaki eta ebazpenen kudeaketa eta gauzatea, eta Partzuergoaren dinamizatzailerik gisa jardungo du, proiektuak bultzatu eta jarduera irizpideak proposatuz, 2017ko urriaren 16tik aurrera.

12. EBAZPENA, 2017ko urriaren 30koa. Haren bidez, berresten da “Ibai izena duen herrialde bat” mugaz gaindiko pintura-lehiaketako epaimahaiak Juan Carlos ARESTI PEREZ jauna irabazle hautatzeko erabakia, eta irabazleari 400 euroko saria ordain dakion agintzen da. Kopuru horri dagozkion lege-atxikipeak aplikatuko zaizkio.

PARTZUERGOA ETA BIDASOA BIZIRIKEN ARTEKO BEHIN BEHINEKO KUDEAKETA HITZARMENA BERRESTEA

Mugaz Gaindiko Partzuergoaren Batzar Nagusiari Lehendakariak 2017ko urriaren 12an emaniko 11 zenbakiko Ebazpena aurkezten zaio berrets dezan; Bidasoa bizirik eta Partzuergoaren arteko behin behineko Kudeaketa Hitzarmenaren ingurukoa da ebazpen hori, espedientean jaso bezala, eta honekin batera doa.

“Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoko Lehendakariak 2017ko urriaren 2an emaniko 11. EBAZPENA

Ikusirik Bidasoa Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa osatu zenetik, Bidasoako Garapen Agentzia, S.A. – Bidasoa Bizirik izan dela, hainbat lankidetzak hitzarmen sinatuta, Partzuergoaren jardueraren kudeaketa bere gain hartu duena, Partzuergoaren organo erabakitzaileek hartutako akordio eta erabakiak kudeatu eta gauzatzeaz arduratu baita, eta era berean Partzuergoaren dinamizatzailerik gisa jardun du, proiektuak bultzatu eta jarduera irizpideak proposatuz

Egitatea: Partzuergoko Kontseilu Nagusiaren 2015ko urriaren 16ko akordioaren bidez onartu zen Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoaren eta Bidasoako Garapen Agentzia S.A.ren arteko Lankidetzak Hitzarmena, zeina indarrean baitago 2017ko urriaren 15era arte, luzapen erregimenean.

Ikusirik Batzar Nagusiaren egitekoa dela aipaturiko kudeaketa hitzarmen horren inguruko erabakia hartzea, hala ere, Batzar Nagusiaren beste bilerarik ez da aurreikusten hitzarmen horren epemuga baino lehen.

Gogoan izanik beharrezkoa dela lankidetzak hitzarmen hori luzatzea, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren programen kudeaketaren garapena ikusirik.

Presazko arrazoiak izanik, eta Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren estatutuen 17. artikulua emaniko ahalmenak erabiliz.

ERABAKI DUT

1.- Behin-behinean eta gutxieneko eta ezinbesteko hiru hilabeteko eperako izenpetzea, Partzuergoaren kudeaketa kaltetu ez dadin, beharreko hitzarmena Bidasoako Garapenerako Agentzia S.A.rekin. Haren arabera, agentzia horrek bere gain hartuko du Partzuergoaren jardueraren kudeaketa, Partzuergoaren organo erabakitzailleek hartutako erabaki eta ebazpenen kudeaketa eta gauzatzea, eta Partzuergoaren dinamizatzaile gisa jardungo du, proiektuak bultzatu eta jardura irizpideak proposatuz, 2017ko urriaren 16etik aurrera.

2.- Ebazpen hau Bidasoa-Txingudi Partzuergoaren Batzar Nagusiari aurkeztea berrets dezan eta Bidasoako Garapenerako Agentzia, S.A.ri ebazpen horren berri ematea.

3.- Erabaki hau finkoa da administrazio-bidean. Beraren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean, edo bestela, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean zuzenean inpugnatu daiteke, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean, bidezkozat jo litekeen beste edozein errekurtsoz gainera.

Irun, 2017ko urriak 2.”

BIDASOA BIZIRIK ETA PARTZUERGOAREN ARTEKO KUDEAKETA HITZARMEN BERRIA ONARTZEA

Gogoan izanik Bidasoa Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa sortu zenetik, Bidasoako Garapenerako Agentzia S.A.-Bidasoa Bizirik izan dela, hainbat lankidetzaz hitzarmen sinatuta, Partzuergoaren jardueraren kudeaketa bere gain hartu duena, eta Partzuergoaren organo erabakitzaileek hartutako akordio eta erabakiak kudeatu eta gauzatzeaz arduratu dena, hura dinamizatuz eta proiektuak bultzatu eta jarduerarako irizpideak proposatuz.

Gogoan izanik 1998ko abenduaren 23an sinaturiko lankidetzarako Administrazio arteko Hitzarmenak eta Partzuergoaren Estatutuek beren 6. artikuluan, hamar urteko iraupena zehazten dutela Partzuergorako, luzatzeko aukerarekin, eta 2008ko abenduaren 23an berri zela.

Ikusirik Bidasoako Garapenerako Agentzia, S.A. elkarte publikoa da, Irun eta Hondarribiko udalerriek partekatua, eta haren helburu soziala Bidasoa Beherea Eskualdea sustatu eta bultzatzeko interesekoak diren jarduerak gauzatzea da, eta bereziki, mugaz gaindiko lankidetzaz eta enplegua bultzatzea, lan prestakuntza eta orientazioa, ikerketa eta garapena sustatzea, hain zuzen ere.

Gogoan izanik 2017eko urriaren 2ko 11. ebazpenaren bidez, onartu zela Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren eta Bidasoako Garapenerako Agentzia, S.A.aren artean sinatu beharreko Lankidetzaz Hitzarmena, eta behin-behineko hitzarmen hori indarrean dagoela 2018ko urtarrilak 15 bitarte.

Gogoan izanik Batzar Nagusiaren egitekoa dela aipaturiko kudeaketa hitzarmen horren inguruko erabakia hartzea, eta beharrezkoa dela aipaturiko lankidetzaz hitzarmen hori berritzea, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren programen kudeaketaren garapena ikusirik.

Honako erabakirako proposamen hau aurkezten zaio Partzuergoaren Batzar Nagusiari:

1.- Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren eta Bidasoako Garapenerako Agentzia S.A.aren artean sinatu beharreko Lankidetzaz Hitzarmen berria onartzea, honekin batera doa hura. Hitzarmen horren bidez, Bidasoako Garapenerako Agentzia, S.A.k bere gain hartuko du oro har Partzuergoaren jardueraren kudeaketa, aipatutako hitzarmenaren arabera; Hitzarmen hori, inplikaturiko aldeek sinatzen duten egunean hasiko da indarrean eta urte bateko indarraldia izango du, beste urtebetez luzatzeko aukerarekin, erabaki espresaren bidez.

2.- Partzuergoko Lehendakariari ahala ematea Lankidetzaren Hitzarmena sinatuz.

3.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean, edo bestela, Euskadiko Justizi Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean zuzenean inpugnatu daiteke, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean, bidezkoztat jo litekeen beste edozein errekurtsoz gainera.

2018 EKITALDIRAKO AURREKONTU ORROKORREN PROIEKTUA BALIOZTATZEA

Ikusirik Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuen inguruko abenduaren 19ko 21/2003 FORU ARAUAREN 6. artikuluan xedaturikoaren arabera prestatu dela 2018 ekitaldirako Aurrekontu Orokorren espediente hau.

Gogoan izanik Mugaz Gaindiko Partzuergoak onar dezan aurkezten den Aurrekontu Proiektuak bete egiten duela, bere gastuen eta sarreraren sailkapen ekonomikoan eta bere sailkapen funtzionalean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuen inguruko abenduaren 19ko 21/2003 FORU ARAUAREN III. Kapituluak zehaztutako egitura.

Ikusirik 21/2003 FORU ARAUAREN 14. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutakoa, honako hau proposatzen zaio Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren Batzar Nagusiari:

1. Mugaz Gaindiko Partzuergoaren 2018 ekitaldirako Aurrekontu Orokorren proiektua balioztatzea.

2. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Azaroaren 26ko, 30/1992 Legearen 4. Artikuluaren arabera, Espedientea Irungo Udalari bidaltzea kudeaketa egin dezan.

PARTZUERGOAREN ZUZENDARITZA BATZORDEAREN JARDUEREI BURUZKO TXOSTENA

Zuzendaritza Batzordeak bere eskuduntza esparruan bideratutako jarduera eta hartutako erabakien berri eman zion Batzar Nagusiari. Hona hemen orain arte egindako bileretan aztertutako puntuak:

2017ko irailaren 13ko bilera

1. 2017ko ekainaren 20ko bileraren akta onartzea
2. 2018ko aurrekontuen laurpen taularen aurkezpena
3. Interpretazio Zentroan energia aurrezteko proposamena
4. Bidasoa bizirik eta partzuergoaren arteko kudeaketa hitzarmen berria
5. Beste batzuk

2017ko azaroaren 29ko bilera

1. 2017ko irailaren 13ko bileraren akta onartzea
2. Gu Geu programaren egoera
3. 2017 eta 2018ko euskarazko komunikabideei dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea.
4. 2018rako aurrekontuen zirriborroa balioztatzea
5. Sareuska proiektuaren informazioa (Mintzodromoa-Merkataritza)
6. Lehendakariaren kreditu gehigarria onartzea
7. Batzar Nagusirako gai-zerrendaren proposamena
8. Kirol Batzordeko proposamenak
9. Bidasoa biziriketako kudeaketaren bigarren eta hirugarren hiru hilekoak balioztatzea
10. Grafiti lehiaketako deialdi berria egiteko proposamena
11. Badiako bidearen seinaleetika berritzeko aurrekontuak
12. Bidasoko Interpretazio Zentrorako zuzentzen duen oinezkoentzako seinalea jartzeko proposamena
13. Beste batzuk

PARTZUERGOAREN BATZAR NAGUSIKO KARGUEN IZENDAPENA

Ikusirik Partzuergoaren Batzar Nagusiaren osaera berria, lehenengo puntuan adierazia.

Gogoan izanik Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren Estatutuen 15. artikulua araber, Lehendakariaren eta bi Lehendakariordeen karguak txandaka hartuko direla urtebeteko eperako.

Ikusirik Partzuergoaren Batzar Nagusiak 1999ko urriaren 22an hartutako erabakiak xedaturikoa Lehendakari, Lehen Lehendakariorde eta Bigarren Lehendakariorde karguak urtero txandaka hartzeari dagokionean.

Ikusirik jada urtebete igaro dela Lehendakariaren eta bi Lehendakariordeen karguak azken aldiz izendatu zirenetik.

Honako erabakirako proposamen hau aurkezten zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

1. Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren Batzar Nagusiko Presidente izendatzea Jose Antonio Santano Clavero jauna Irungo Alkatea, Lehen Presidenteorde izendatzea Txomin Sagarzazu Ancisar jauna Hondarribiko Alkatea, eta Bigarren Presidenteorde izendatzea Kotte Ecenarro jauna Hendaiako Alkatea.

2. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean, edo bestela, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean zuzenean inpugnatu daiteke, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean, bidezkozat jo litekeen beste edozein errekurtsoz gainera.